

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

#### **1209/2016 Foru Agindua, azaroaren 16koa, xedatzen duena María Pérez De la Peña izendatzea Arabako Garraioaren Arbitraje Batzordeko kide berri gisa**

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 4ko 50/1995 Foru Dekretuaren bidez Arabako Garraioaren Arbitraje Batzordea sortu zen, uztailaren 30eko 16/1987 Legearen, lurreko garraioen antolamenduarenaren, 37. eta 38. artikuluetan ezarritako eginkizunak betetzeko, Estatuaren Administrazioarekin 1950eko martxoaren 9an izenpetutako lurreko garraioei buruzko hitzarmenei dagokienez.

Oro har, Arbitraje Batzordeari dagokio lurreko garraioaren arloko kontratuak betetzearen inguruan sortutako eztabaidak ebaztea, merkataritzarekin lotuta daudenak, arbitrajearen legeria orokorrean aurreikusten diren ondoreekin, hala adostuta Arbitraje Batzordeari kontratu horien berri ematen zaionean eta garraioen arloko enpresek egindako kontratuak zein garraioaren arloan laguntzeko edo hura osatzeko egiten diren ekintzenek eztabaidak sortzen dituztenean.

Garraioaren Arbitraje Batzordearen osakerari dagokionez, irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen araudiaren 8. artikulua dio Garraioaren Arbitraje Batzordea lehendakariak eta gutxienez bi batzordekidek eta gehienez lauk osatuko dutela.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko funtzionarioetatik zuzenbideko lizentziadunei dagokie Arabako Garraioaren Arbitraje Batzordeko lehendakari kargua.

Kide bat izango da erabiltzaileen edo enpresa zamaketarien ordezkaria. Horretarako, bi pertsona aukeratuko dira, eztabaidetan hurrenez hurren jardungo dutenak, bidaiariak edo salgaiak garraiatzen dituzten kontuan hartuta. Erabiltzaileak ordezkatzeko dituzten elkarteek aukeratu beharko dute lehenengo pertsona hori eta zamaketariak edo Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala ordezkatzeko dituzten elkarteek aukeratuko dute bigarrena.

Beste kide bat izango da garraio enpresen edo haien jarduera osagarrien ordezkaria. Bidaiariak garraiatzeko enpresen ordezkari bat egon beharko da gutxienez, eta salgaiak garraiatzen dituzten enpresen beste ordezkari bat. Eztabaidaren muinaren arabera jardungo dute. Horiez gain, trenbide bidezko garraio enpresen ordezkari bat ere izendatuko da gutxienez.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko funtzionarioen artetik izendatuko da kide-idazkari kargua. Kargu horren erantzukizuna izango da kide anitzeko organoaren jarduketan formazko legezotasuna eta legezotasun materiala zaintzea, organo horren jarduketak ziurtatzea eta prozedurak, eraketa arauak eta erabakiak errespetatzen direla bermatzea. Behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren langile laguntzaileak atxikiko dira idazkaritzara.

Arbitraje Batzordeko kideen ordezkariak izendatu ahalko dira.

Arbitraje Batzordea eratu zenetik ondo bete du bere eginkizuna. Bere eskumeneko eremuan gatazkak konpontzen lagundu du eta planteatu dizkioten eskaerei erantzun die. Agerikoa den legez, urterik urte gehiago dira eskaera horiek. Nola orain gero eta erreklamazio gehiago egiten diren eta nola premia handiagoa dagoen erreklamazio horiei irtenbidea emateko lehenbailehen, egoki da beste kide bat sartzera Arabako Arbitrajearen Garraio Batzordean, hark lehendakariaren eta idazkariaren ordezkari eginkizunak bete ditzan. Helburu horretarako, María Pérez de la Peña, zuzenbideko lizentziaduna eta karrerako funtzionarioa, batzordeko kide gisa izendatu dadin proposatzen da, 50/1995 Foru Dekretuan jasoriko gaikuntzaz baliatuz.

Batzordekidea berritzean beharrezko publizitatea egingo da, abstentzioak eta ezespentak baleude.

Eta dagozkidan eskumenez baliatuz, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 4ko 50/1995 Foru Dekretuak, Arbitraje Batzordea eratu zuenak, eta otsailaren 9ko 15/2016 Foru Dekretuak, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak, xedatutakoari jarraituz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Pérez de la Peña izendatzea Arabako Garraioaren Arbitraje Batzordeko kide berri gisa, lehendakariaren hirugarren ordezkio eta kide-idazkariaren bigarren ordezkio gisa.

Bigarrena. Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Hirugarrena. Foru Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 16a

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua*

**JESÚS MARÍA LÓPEZ UBIERNA**

*Bide Azpiegituren Mugikortasunaren zuzendaria*

**MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA**